

XXXVIII

ARABAKO AINTZINAKO MUSIKA ASTEA SEMANA DE LA MÚSICA ANTIGUA DE ÁLAVA

2020ko irailaren 5etik 12ra

Del 5 al 12 de septiembre de 2020



Informazio gehiago
Más información:






XXXVIII

ARABAKO AINTZINAKO MUSIKA ASTEA SEMANA DE LA MÚSICA **ANTIGUA** DE ÁLAVA

2020ko irailaren **5etik 12ra**

Del **5 al 12** de septiembre de **2020**





AURKIBIDEA/ÍNDICE

EGITARAUA/PROGRAMA

Iraila/Septiembre 2020

VITORIA-GASTEIZ

7 Spanish Travelling Virtuosi	7
La Guirlande	
8 El esplendor de la viola da gamba	17
Vittorio Ghielmi, Daniel Oyarzábal y Daniel Zapico	
9 Cantene d'Amore	29
Capilla Santa María - Carlos Mena	
10 Siface, L'amor castrato	39
Nereydas - Filippo Mineccia	
11 Juan Sebastian Elkano, Primus Circumdedisti Me	51
Euskal Barrokensemble - Enrike Solinís	

ARABA/ÁLAVA

5 Sonatas para violín y clave de J.S. Bach	61
Andoni Mercero y Alfonso Sebastián	
6 Au monde	73
Daniel Zapico	
12 Glosar e cantar	79
Sar Ensemble	

JARDUERA OSAGARRIAK/ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS 6

VITORIA-GASTEIZ

7 Concierto comentado con opción a preguntas: Instrumentos, compositores y obras La Guirlande	
8 Ensayo abierto comentado con opción a preguntas: Instrumentos, compositores y obras Vittorio Ghielmi, Daniel Oyarzábal y Daniel Zapico	
9 Conferencia Carlos Mena	
10 Concierto alumnado Conservatorio Jesús Guridi Aitor Garitano Agirreolea, Estíbaliz Arroyo, José Ramón Rodríguez Vadillo	
11 Descubriendo la Música Antigua (actividad para niños/as y familias) Euskal Barrokensemble - Enrike Solinís y Miren Zeberio	



ARABA/ÁLAVA

5

Laudio/Llodio (Kasino/Casino) / 19:30
Sonatas para violín y clave de J.S. Bach
Andoni Mercero y Alfonso Sebastián

6

Murgia (San Migel Eliza/Iglesia de San Miguel) / 19:30
Au monde
Daniel Zapico

12

Bernedo (Ama Birgiñaren Natibitatearen Eliza/Iglesia Natividad de Ntra. Sra.) / 19:30
Glosar e cantar
Sar ensemble



Sarrera doan edukiera bete arte.
Entrada libre hasta completar aforo.

Ocharra: debekatuta dago obrak interpretatzen diren bitartean sartzea edo irtetea.
Nota: No está permitida la entrada y salida durante la interpretación de las obras



VITORIA-GASTEIZ

7

San Pedro (Eliza/Iglesia) / 20:15
Spanish Travelling Virtuosi
La Guirlande

8

San Pedro (Eliza/Iglesia) / 20:15
El esplendor de la viola da gamba
Vittorio Ghielmi, Daniel Oyarzábal y Daniel Zapico

9

Santa María (Katedrala/Catedral) / 20:15
Cantene d'Amore
Capilla Santa María - Carlos Mena

10

Santa María (Katedrala/Catedral) / 20:15
Siface, L'amor castrato
Nereydas - Filippo Mineccia

11

Santa María (Katedrala/Catedral) / 20:15
Juan Sebastian Elkano
Euskal Barrokensemble - Enrike Solinís



Sarrera gonbidapenarekin, edukiera bete arte.
Entrada con invitación hasta completar aforo.

Ocharra: debekatuta dago obrak interpretatzen diren bitartean sartzea edo irteteara.

Nota: No está permitida la entrada y salida durante la interpretación de las obras.

JARDUERA OSAGARRIAK

ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS

VITORIA-GASTEIZ

7

San Pedro (Eliza/Iglesia) / 12:30

Kontzertu iruzkindua galderetarako aukerarekin:

Instrumentuak, konpositoreak eta obrak

Concierto comentado con opción a preguntas:

Instrumentos, compositores y obras

La Guirlande

Luis Martínez, *trabertsoa/traverso*

Vadym Makarenko, *biolina/violín*

Ester Domingo, *biolontxeloa/violoncello*

Pablo FitzGerald, *guitarra barrokoa/guitarra barroca*

Joan Boronat, *klabezina/clave*

8

San Pedro (Eliza/Iglesia) / 12:30

Entsegu ireki iruzkindua galderetarako aukerarekin:

Instrumentuak, konpositoreak eta obrak

Ensayo abierto comentado con opción a preguntas:

Instrumentos, compositores y obras

Vittorio Ghielmi, *viola da gamba*

Daniel Oyarzabal, *klabezina eta organoa/clave y órgano*

Daniel Zapico, *tiorba*

9

Santa María (Katedral/Catedral) / 19:30

Hitzaldia/Conferencia

Carlos Mena, *kontratenorra eta zuzendaria/contratenor y dirección*

10

Santa María (Katedral/Catedral) / 13:00

Jesús Guridi Kontserbatorioko ikasleen kontzertua

Concierto alumnado Conservatorio Jesús Guridi

Aitor Garitano Agirreolea, *tenorra/tenor*

Estíbaliz Arroyo, *sopranoa/soprano*

José Ramón Rodríguez Vadillo, *organoa/órgano*

11

Santa María (Katedral/Catedral) / 18:45 (sarrera/entrada: 18:30)

Antzinako Musika deskubritzen (haur eta familientzako jarduera)

Descubriendo la Música Antigua (actividad para niños/as y familias)

Euskal Barrokensemble - Enrike Solinís, Miren Zeberio

Spanish Travelling Virtuosi

La Guirlande



San Pedro (Eliza/Iglesia) / 20:15

Spanish Travelling Virtuosi

La Guirlande

Luis Martínez

Trabertsoa/Traverso

Vadym Makarenko

Biolina/Violín

Ester Domingo

Biolontxeloa/Violoncello

Pablo FitzGerald

Guitarra barrokoa/

Guitarra barroca

Joan Boronat

Klabezina/Clave

La Guirlande

Luis Martínez Pueyok sortu zuen, *Schola Cantorum Basiliensis*-en egon zen bitartean, eta hala, *La Guirlande* gaur egunean XVIII. eta XIX. mendeetako musikaren interpretazio historizistan espezializatutako ensemble moldaerrazentako bat da.

Hainbat sari eskuratu dituzte, hala nola 2018ko Gema saria talde gazte onenari eta bigarren saria CREAR18 sarietan Aragoiko talentu gazteei, eta nazioarteko zenbait lehiaketa ere irabazi dituzte, bestek beste XVIII *Biagio-Marini Wettbewerb* eta Gijónko Antzinako Musikaren V. Nazioarteko Lehiaketa. *La Guirlande*n errepetorioaren ardatza XVIII. eta XIX. mendeetako musika da, non txirulak funtsezko lekua hartzen baitu: txirularako sonatatik hasi —nahitaezko klabezin edo pianofortearekin, eta baxu jarraitua— eta bakarlari den kontzertura arte, ganbera musikaren konbinazio mota orotatik igarota. Gainera, *La Guirlande* taldeko musikarieki jatorrizko instrumentuak edo horien erreplikak erabiltzen dituzte

La Guirlande

Fundado por Luis Martínez Pueyo durante su estancia en la *Schola Cantorum Basiliensis*, *La Guirlande* es uno de los ensambles especializados en la interpretación historicista de la música de los siglos XVIII y XIX más versátiles del panorama actual.

Galardonados con el Premio Gema 2018 al Mejor Grupo Joven, el segundo premio en los premios CREAR18 a Jóvenes Talentos Aragoneses, así como ganadores de varios concursos internacionales como el XVIII *Biagio-Marini Wettbewerb* y el V Concurso Internacional de Música Antigua de Gijón, el repertorio de *La Guirlande* se centra en aquella música del siglo XVIII y XIX donde la flauta desempeña un papel fundamental: desde la sonata para flauta – con clave o pianoforte obligado, así como con bajo continuo – hasta el concierto solista, pasando por todo tipo de combinaciones de música de cámara. Además, el uso de instrumentos originales o réplicas de los mismos, así como un riguroso estudio

eta hainbat tratatu eta iturriren bitartez interpretazioa modu historikoan aztertzen dute zehaztasunez, helburu nagusi hau lortzeko: konpositore bakoitzaren jatorrizko ideiarekiko hurbilena den errepertorioaren interpretazioa lortzea.

La Guirlande taldean hainbat musikari ospetsu daude, interpretazio historizista alorrekoak. Antzinako musikaren arloko munduko eskola garrantzitsuenetakoetan jaso zuten prestakuntza (*Schola Cantorum Basiliensis*, *Parisko Conservatoire National Supérieur*, *Koninklijk Conservatorium den Haag*), eta kide guztiak Europako eta nazioarteko izen handiko orkestra eta ensembleetan parte hartzen dute. *La Guirlandek* jaialdi garrantzitsuetan parte hartu du; honako hauetan, besteak beste: *Freunde Alter Musik Basel*, Santanderreko Nazioarteko Jaialdia, Donostiako Musika Hamabostaldia, Madrilgo Erkidegoko Arte Sakratuaren Nazioarteko Jaialdia, Casalarreinako Antzinako Musikaren Jaialdia, Madrilgo Erkidegoko Udako Klasikoak, *Orgao Vila Nova de Famalicao e Santo Tirso* kontzertu zikloa, Boadilla del Monteko Eguberri Barrokoa, MUSAE Musika Estatuko Museoetan, Gijónko Antzinako Musikaren Akademia, Calatayudeko José de Nebra Antzinako Musikaren Jaialdia, Zaragozako Errromako Foroaren Museoko Musika Jaialdia eta Huescako EnClaves de la Hoya Jaialdia. Gainera, Epilako Antzinako Musikaren Jaialdia antolatzen du.

La Guirlande izena Apolo jainkoaren sinbolo garrantzitsuenetako batetik dator, ospe eta arteen, jakinduriaren eta jokoien aintzatesteko sinboloa delako.

histórico de la práctica interpretativa a través de diferentes tratados y fuentes, marcan el principal objetivo de *La Guirlande*: conseguir una interpretación del repertorio lo más cercana posible a la idea original de cada uno de los compositores.

La Guirlande cuenta con músicos de reconocido prestigio en el campo de la interpretación historicista. Formados en algunas de las escuelas más importantes del mundo en el ámbito de la música antigua (*Schola Cantorum Basiliensis*, *Conservatoire National Supérieur de París*, *Koninklijk Conservatorium den Haag*), todos ellos colaboran con ensembles y orquestas de renombre a nivel europeo e internacional. *La Guirlande* ha participado en importantes festivales como *Freunde Alter Musik Basel*, Festival Internacional de Santander, Quincena Musical de San Sebastián, Festival Internacional de Arte Sacro de la Comunidad de Madrid, Festival de Música Antigua de Casalarreina, Clásicos en Verano de la Comunidad de Madrid, Ciclo de Conciertos de *Orgao Vila Nova de Famalicao e Santo Tirso*, Navidad Barroca en Boadilla del Monte, MUSAE Música en los Museos Estatales, Academia de Música Antigua de Gijón, Festival de Música Antigua José de Nebra de Calatayud, Festival de Música Museo del Foro Romano de Zaragoza, y Festival EnClaves de la Hoya de Huesca. Además, organiza el Festival de Música Antigua de Épila.

La Guirlande toma su nombre de uno de los principales símbolos del Dios Apolo, signo de gloria y reconocimiento en las artes, la sabiduría, y los juegos.

EGITARAUΑ ♦ PROGRAMA

Spanish travelling virtuosi

*Espaniako bidaiaiari birtuosoak Ilustrazioaren Europan
Virtuosos viajeros españoles en la Europa de la Ilustración*

Joan Baptista Pla (1720-1773)

Sonata per Flauto, Violino e Basso, en Do mayor, III-28 (Sei Sonata per Flauto, Violino e Basso del Sig. Giovanni Plà, Génova, 1762)¹

I. Andantino / II. Minuetto



Joaquín Nicolás Ximénez Brufal (1742-1791?)

Sonata para violín y bajo continuo en Sol mayor (Six solos for a Violin. Composed and humbly Dedicated to the Right Honourable the Earl of Sandwich. Londres, 1772)²

I. Allegro | II. Adagio | III. Presto ma non troppo



Giacomo Facco (1676-1753)

Sinfonia di Violoncello, N° 9 en La menor (Sinfonie e balletti a due violoncelli. Madrid, ?)³

I. Adagio | II. Corrente | III. Largo | IV. Giga



Joan Baptista Pla

Sonata IV en Do mayor para flauta, violín y bajo continuo, III-1 (Six Sonates en Trio Pour deux Violons et Basse. Les dits Trio peuvent se joüer Sur le Hautbois Flute et pardessus de Viole. París, 1759)⁴

I. Allegretto | II. Cantabile Largo Sostenuto | III. Allegretto



Felipe Lluch (?)

Sonata for y Flauto Traversa by Sig. Filippo Llague en Re mayor (?)

I. Prestaello | II. Piacevole | III. Presto

Joan Cabanilles (1644-1712)

Corrente Italiana (?)



Joan Baptista Pla

Sonata per Flauto, Violino e Basso en Re mayor, III-23

(Sei Sonata per Flauto, Violino e Basso del Sig. Giovanni Plà. Génova, 1762)¹

I. Andantino | II. Presto

¹ Ondare berreskuratzea. “Conservatorio di Musica Niccolò Paganini” kontserbatorioaren liburutegia. Genoa/Recuperación patrimonial. Biblioteca del “Conservatorio di Musica Niccolò Paganini”. Génova.

² Ondare berreskuratzea. Biblioteca Digital Hispánica. Spainiako Biblioteka Nazionala. Madril/ Recuperación patrimonial. Biblioteca Digital Hispánica. Biblioteca Nacional de España. Madrid.

³ Ondare berreskuratzea. Biblioteca Marziana de Venezia. Venezia/Recuperación patrimonial. Biblioteca Marziana de Venezia. Venecia.

⁴ Ondare berreskuratzea. Gallica. Bibliothèque nationale de France. Paris/Recuperación patrimonial. Gallica. Bibliothèque nationale de France. París

Programaren gaineko iruzkinak/Notas al programa

Marina Hervás

Barroko musikalak, neurri handi batean, eskualdeen karakterizazioa bilatu zuen, gustu, modu eta baliabide jakin batzuekin lotuz, baina Ilustrazioan kosmopolitaren ideiak pisu esanguratsua hartu zuen. Barrokoan, ezin da “nacionalismo” hitz egin esangura modernoan. Areago esanda, nazioaren bilaketa estatu modernoen identitate eraikuntzaren oinarrian dago, non musikak estereotipo moral eta estetiko jakin batzuk nazionalitate desberdinei atxikitzeko balio duen. Horrek azaltzen du, kasurako, Espanian ezarri zen nolabaiteko askatasun morala, exotizatuta, eta musikagile batzuei (Mozart eta haren *Don Giovanni* edo Bizet eta haren *Carmen*) balio germaniarak eta frantsesak, hurrenez hurren, urratzeko aukera. Hau da, molde nazional barrokoek musika lagun “bidaiatzea” ahalbidetu zuten,

Mientras que el barroco musical buscó, en gran medida, la caracterización de las distintas regiones relacionándolas con determinados gustos, maneras y recursos, en la Ilustración tomó un peso significativo la idea de lo cosmopolita. En el barroco no se podía hablar aun de “nacionalismo” en sentido moderno. Más bien, la búsqueda de lo nacional se encuentra a la base de la construcción identitaria de los estados modernos, en los que la música sirve para adscribir determinados estereotipos morales y estéticos a las distintas nacionalidades. Eso explica por qué, por ejemplo, en España se situaba cierta libertad moral que, exotizada, permitió a compositores como Mozart y su *Don Giovanni* o a Bizet con *Carmen* probar la trasgresión de los valores germanos y franceses, respectivamente. Es decir, los estilos

eta “iruditeria estetikoak” eraikitzeko balio izan zuten. XVIII. mendean, ordea, “Gizakiaren” kategoria –políticoa– indartzen, eta mugak gainditzen saiatu zen: horregatik mahairatu zen kosmopolitaren aukera, bereizten gaituenaren aurrean, berdintzen gaituenaren inguruko galdera. Pentsatuko duzuenez, gaur egun ere auzi horren aurrean gaude.

Kosmopolita dena garatzen eta onartzan laguntzen du komunikatzeko eta bidaiatzeko bideak pixkanaka garatzeak. Errenazimentutik aurrera, eskualde batzuen arteko lotura egonkorra bazegoen ere, hala nola España eta Italiaaren artekoa (esanguratsua da, adibidez, Italiara egindako bidaiaaren eragina musikagile batzuengan, adibidez, Tomás Luis de Victoriarengan), XVIII. mendean maiz egiten ziren eskualdeen arteko bidaiaik, estrategia eta elkarrikzeta politikoak nahitaez partekatzen ez zituztenen artekoak. Artistak, izan ere, aitzindariak izan ziren gaur egun arte iritsi den kultura trukearen nozioan. Modu horretara, bi adar aurki ditzakegu bidegurutze horretan: alde batetik, zenbait eskualdetatik barrena ibili ziren artista españiarak eta, bestetik, musikagile españiarretan idoro ditugun jardunbide konpositibo atzeritarren eragina. Bigarren jarduera horren adibidea da Joan Cabanillesi egotzitako *Corrente italiana*. Piezaren osagai “italiarren” berri, batez ere, lanaren eraikuntzaren argitasunak ematen digu, bereziki hasieran, non, dirudienez, osteko soinu materiala hedatzen duen. Lan hori, barrokoaren azken erdikoa omen dena, italiar *courante* edo *corrente* direlakoen izpiritutik aldentzen da, Italiakoak oso azkarrak baitziren. –bigarren zatian bakarrik antzeman daiteke hori–. “Italiar” izenondoak “frantses” jatorritik bereizi nahi du; azkenak, lehenengoaren argitasun erritmikoaren aldean, desberdintasuna eta anbiquotasuna

nacionales barrocos sirvieron para la paulatina construcción de “imaginarios estéticos” que permitían “viajar” musicalmente. En el siglo XVIII, sin embargo, toma fuerza la categoría -política- de “ser humano”, que trata de trascender fronteras: de ahí que se plantee la posibilidad de lo cosmopolita, la pregunta por lo que nos iguala frente a lo que nos diferencia. Como se imaginarán, ante esa diatriba estamos aun hoy.

Al desarrollo y aceptación de lo cosmopolita ayuda significativamente el paulatino desarrollo de las vías de comunicación y viaje. Aunque ya desde el Renacimiento había conexión estable entre algunas regiones, como es el caso entre España e Italia (es significativo, por ejemplo, la influencia de su viaje a Italia en compositores como Tomás Luis de Victoria), en el siglo XVIII se volvieron frecuentes los viajes entre regiones que no necesariamente compartían estrategias y diálogos políticos. Los artistas, de hecho, fueron precursores en cierto sentido de la noción de intercambio cultural que llega hasta nuestros días. De este modo, encontramos dos vías en este cruce: por un lado, artistas españoles que viajaron por diferentes regiones y, por otro, la influencia de prácticas compositivas extranjeras que encontramos en compositores españoles. Es ejemplo de esta segunda línea la *Corrente italiana* atribuida a Joan Cabanilles. El elemento “italiano” de la pieza viene dado, sobre todo, por la claridad en su construcción, especialmente al principio, donde parece que despliega el material sonoro posterior. Esta obra, perteneciente, según se supone, a la última mitad del barroco, se distancia del espíritu de las *courantes* o *correntes* italianas, que eran significativamente rápidas. –algo que solo se aprecia en la segunda

bilatu ohi ditu. Era berean, Giacomo Facco Spainian bizi izan zen beste musikagile bat dugu –hain zuen ere, Felipe V.aren Gortean– eta, beraz, modu organikoan eskaini zuen bere ikasketa “italiarra”. Neurri handi batean, Farinelli, kastratu oso ezaguna, eta, agian, *star system* delakoaren –segurutik, berak nahi izan gabe– aitzindarietako bat, Spainian egon izanak beste musikagile batzuekiko interesa galarazi zuen.

XVIII. mendean, musikagileak beren talentu eta dedikazioagatik balioetsiak baziren ere, tradizioz, boteretsuren baten soldatapeko langileak besterik ez ziren, “artistaren” ideia sortu berriaren aldean; Ildo horri jarraiki, XIX. mendean, musikagileak, neurri handi batean, ordaintzaileeit atsegin emateagatiko presiotik libratu ziren eta haien konpromisorri lotutako egutegia betetzen hasi ziren. Hizpide darabilgun *sinfonia* k zango biola bailitzan hartzan du txeloa, batez ere, mugimendu geldoetan (lehena eta bigarrena): izaera introspektiboa du, ia meditaziozkoa. Bigarren eta laugarren mugimenduak bi dantzek osatzentz dituzte: ‘korronteak’, Faccoren herritartasunagatik espero zitekeen bezala, arestian aipatutako irizpide italiarren ondorio dena; eta ‘gigak’, jatorri ingelesekoa, non material melodikoak nolabaiteko joera zirkularra duen. Dantzen erabilera suiteekiko gustu barroko zabalaren emaitza da, konposizio aurrerapenek “findutako” herri ondare nazionalen soinu mapatzat baliatuta.

Joan Baptista Pla, anaia Joserekin batera, Italian, Inglaterran eta Frantzian barrena ibili ziren etengabe, eta oboe eta flauta jotzaile gisa nabarmendu ziren, baita musikagile gisa ere, kontzertu honen inguruko lanetan ikus daitekeen bezala. *Do maiorreko sonata*, berehalako elkarritzeta bihurtzen den aire pastoral batez hasten da, eta xirulak eta biolinak

parte-. La adjetivación “italiana” busca diferenciarse de la “francesa” que, frente a la claridad rítmica de la primera, busca la desigualdad y la ambigüedad. Asimismo, Giacomo Facco es otro más de los compositores que vivió en España -en concreto, en la Corte de Felipe V- y, por tanto, aportó de manera orgánica su aprendizaje “italiano”. En gran medida, la presencia en España de Farinelli, el conocidísimo castrato y quizás una de las figuras precursoras -a su pesar, probablemente- del *star system*, hizo que se perdiera el interés en otros compositores. En el siglo XVIII convivía la tradición en la que los compositores, aunque valorados por su talento y dedicación, no eran más que trabajadores asalariados para una figura de poder, frente a la emergente idea de “artista”, que haría que en el siglo XIX los compositores se librasen en gran medida de la presión por agradar a sus pagadores y cumplir con su calendario de compromisos. La *Sinfonia* que nos ocupa trata al cello como si de una viola de gamba se tratase, especialmente en los movimientos lentos (primero y segundo): tiene un carácter introspectivo y casi de meditación. El segundo y cuarto movimiento lo constituyen dos danzas: la corriente, que como es de esperar por la nacionalidad de Facco, obedece a los criterios italianos comentados anteriormente; y la giga, de origen inglés, cuyo material melódico tiene cierta tendencia circular. La inclusión de las danzas obedece al extendido gusto barroco por las Suites, un compendio de bailes de distintas nacionalidades que servía como mapa sonoro de las diferentes herencias populares nacionales “refinadas” por los avances compositivos.

Joan Baptista Pla, junto a su hermano José, viajaron constantemente entre Italia, Inglaterra y Francia, destacando como

elkarri erantzuten diote, hasierako materialetik soinuzko fantasia moduko bat eraikita. Elkarritzetarako egitura hori funtsezkoa da programan eskaintzen diren hiru sonatetan, aina esanguratsua izango da lehen mugimenduetan, pertsonaien aurkezpenarena balitz bezala. Elkarritzeta bi ahots nagusien imitazio eta bariazioen bidez ezartzen da. Bigarren mugimenduak, aldiz, gezurtatu egiten du sinfonietan nabarmenago geratu zen zerbait: menuetti direlakoek gorteko dantza soil izateari utzi ziotela eta, artean, dantzarako joerarik pizten ez zuten musika molde bihurtuta zeudela. Horixe dugu musikak bere gorputz dimentsioa alde batera uzteko duen joeraren seinale, molde izpiritualaren mesedetan, garai horri dagokionez, edo buruko dimentsioa, gaur egungo inguruabarrei dagokienez. Jatorrizko materialaren lasaitasuna eta itxurazko soiltasuna *Sonata IV* eta *Sonata Re mayorrean* ere aurkituko dugu, eta horrek musika herrikoaren nolabaiteko eragina adieraziko digu. Horixe da Espainiako musikaren funtsezko ezaugarrietako bat, gitarrak berehala hartu baitzuen indarra – mundu espainiarri oso lotutakoa–, eta musika “kultuaren” bilakaera, neurri handi batean, gidatu baitzuen. Uztardura hori argiro hauteman daiteke *Sonata IV*.aren Allegrettoan, non baxu jarraituak gitarraren ohiko urradura indartzen duen. Pieza horietan, klasizismoaren musikaren muina aurki daiteke dagoeneko, hots, pieza bakoitzaren “afektuen” anitzasuna. Barrokoan, adierazpenaren argitasunaren alde, mugimendu edo pieza bakoitzak afektu edo afektu familia bakarra adierazi behar zuela uste zen; klasizismoak, berriz, emozioen konplexutasuna lanetzen zuen adierazpenean. *Sonata IV*.aren

intérpretes de oboe y flauta y también como compositores, tal y como puede apreciarse en las obras que enmarcan este concierto. La *Sonata en Do mayor* comienza con un aire pastoral que enseguida se convierte en un diálogo, en el que se responden la flauta y el violín, construido como una suerte de fantasía sonora desde el material inicial. Esta estructura dialogante será clave en las tres Sonatas que componen en el programa, aunque será significativa en los primeros movimientos, como si de la presentación de los personajes se tratase. El diálogo se establece mediante la imitación y variación por parte de las dos voces principales. El segundo movimiento desmiente algo que se hizo evidente, más significativamente, en las sinfonías: que los menuetti habían dejado de ser danzas cortesanas sencillas para convertirse en formas musicales que ya no buscaban ser bailados. Esto es marca de la tendencia de la música a abandonar su dimensión corporal a favor de lo espiritual, en términos de la época, o mental, en términos actuales. La serenidad y aparente sencillez del material del que parten los también lo encontraremos en la *Sonata IV* y en la *Sonata en Re mayor*, lo que denota cierta influencia de la música popular. Esta es una de las características fundamentales de la música de cuño español, pues enseguida tomó fuerza la guitarra –vinculada al mundo español– que marcó en buena medida la deriva de la música “culto”. Se puede apreciar el cruce significativamente en el Allegretto de la *Sonata IV*, en la que el bajo continuo potencia el carácter de rasgueo típico de la guitarra. Encontramos en estas piezas ya el núcleo de la música del clasicismo, a saber, la multiplicidad de “afectos” en cada pieza. Mientras que en el barroco se consideraba, a favor de la claridad de la expresión, que cada movimiento o pieza debía expresar un solo afecto o familia de afectos, en el clasicismo se buscaba

bigarren mugimenduan nabarmentzen da bereziki esandakoa, kontraste modala oso nabarmena baita.

Konplexutasun emozional bera aurkitzen dugu Joaquín Nicolás Ximénez Brufalen *Sonata I* lanean. Ximénez Brufal Alacanteko musikagilea zen, baina bere bizitzaren zatirik handiena Londresen eman zuen. Aztergai dugun programako obrari dagokionez, bigarren mugimendua nabarmentzekoa da, argi eta garbi, gainerakoak baino luzeagoa eta biolinaren biluztasun erabatekotik idatzitakoa, lagun duen kudentzia gogorarazten diguna, sonataren mugimendua baino areago. Horrela, bada, XVIII. mendean nabarmentzen hasi eta XIX. mendean behin betiko garatu zen birtuositatearekiko interesa aipa dezakegu. Birtuosismo instrumental, alde batetik, ergonomía eta soinuaren proiekzioa hobetu zituzten tresnen –eta, biolinaren kasuan, arkuaren– garapenari esker gertatu zen, eta, bestetik, mamitzen ari zen “aiotasun” edo “talentuari” lotutako ideia musikagileik jotzailera zabaldu zelako. Mende askotan, bereziki Erdi Aro berantiarrean eta Errenazimentuan, musikagilea interpreteari lotuta bazegoen ere, jotzaileak konposatutako materialetik inprobisatzea espero baitzen –hau da, idatzitakoa gida moduko bat zen, ez aldatu ezinezko obra bat, gaur egun hein handian uste dugun bezala–, baina Barroko berantiarrean eta klasizismotik aurrera behin betiko izaeraz, konposizioa eta interpretazioa bereizi ziren eta horrek ahalbidetu zuen bi alor horiek guztiz espezializatzea, eta XIX. mendean aipaturiko alorrek mailarik gorena ondu zuten.

Xirularen izaera birtuosistikoa Felipe Lluch musikagile ezezagunaren pieza ezagun bakarrean entzungo dugu. Joan Baptista Plaren lanetan bezala,

acerca la expresión a la complejidad emocional. Es algo que se evidencia especialmente en el segundo movimiento de la *Sonata IV*, donde se destaca el contraste modal.

La misma complejidad emocional la encontramos en la *Sonata I* de Joaquín Nicolás Ximénez Brufal, compositor alicantino que pasó buena parte de su vida en Londres. De la obra del programa que nos ocupa destaca significativamente el segundo movimiento, claramente más largo que el resto, escrito desde la desnudez absoluta del violín, que nos recordará casi más a una cadencia acompañada que a un movimiento de sonata. Permite, así, aproximar el interés por la virtuosidad que comenzaba a despuntar en el siglo XVIII y que tuvo su desarrollo definitivo en el siglo XIX. El virtuosismo instrumental fue posible gracias, por un lado, al desarrollo de los instrumentos -y, en el caso del violín, también del arco-, que mejoraron su ergonomía y proyección sonora; y, por otro, por la ampliación de la emergente idea de “genio” del compositor al intérprete. Si bien durante siglos, especialmente en la Edad Media tardía y en el Renacimiento, y algo menos en el Barroco, la figura del compositor estaba vinculada al intérprete porque se esperaba que el intérprete improvisara desde el material compuesto -es decir, lo escrito era más una guía que una obra inalterable, como consideramos hoy en día en gran medida-, en el Barroco tardío y definitivamente desde el Clasicismo se separó la labor de composición de la de interpretación, lo que permitió una especialización de ambos campos que llega a su cémit en el siglo XIX.

El carácter virtuosístico de la flauta lo escucharemos en la única pieza conocida de Felipe Lluch, un compositor del que poco se sabe. Al igual que en las obras

klasizismoaren “molde galantaren” barruko da lana, hots esaldien egitura eta simetria biribila bilatzen zuen moldeko. Estilo horren konplexutasuna, itxuraz bere eraikuntza estrategian gardena dena, den-dena agerian uztean datza, eta, beraz, exekuzioaren gardentasun eta garbitasunaren eskakizuna berealdikoa da. Joaldi melodikoak eta zehaztasun izugarri batek agintzen duten izaera arin eta biziari eutsi behar zaio. Galaiaren kontzeptua, Errrenazimentuan erabiltzen hasi zen ideia batetik sortu zen, hau da, “grazia” edo berezko dotorezia, zaila erraz bihurtzean datzana, bai gizartearren esparruan –hortik dator “jendetasuna izatea” edo “asertibilitatea”–, bai artearen esparruan. Bigarren mugimenduaren hasperen laburraren ondoren, Presto mugimenduan, *Sonata*ren hasierako eskakizunak berrartzen dira, baina izaera jostariagoz. Gorterako pentsatutako musikak, sarritan, gorteko gertakarien planta edo itxura bazterrean uzten zuten une anbiguo eta laburrak, xelebreak, izaten zituen. Mozart dugu, beharbada, bere lanetan transgresio uneren bat gehien ostentzen zuen musikagileetako bat. Cabanillesen kasuan, pieza honestan entzun dezakegu. Ukitu herrikoia eta soinuaren joeraren etena nahasten ditu, eta hori esanguratsua da beheranzko lerro kromatikoetan eta bakarlariaren txandakako jauzietan.

de Joan Baptista Pla, se trata de una pieza que se enmarca del así llamado “estilo galante” del clasicismo, que buscaba la claridad estructural y la simetría de las frases. Lo complejo de este estilo, aparentemente diáfano en su estrategia constructiva, es que todo queda expuesto y, por tanto, la exigencia de transparencia y limpieza en la ejecución es extrema. Hay que mantener el carácter liviano y desenfadado que promete el discurrir melódico a la vez que una extrema precisión. Lo galante surge de una idea que tiene su rendimiento inicial en el renacimiento, a saber, la “gracia”, una suerte de elegancia natural que consiste en hacer fácil lo difícil, ya sea en el plano social -de ahí el “don de gentes” o la “asertividad”- o en el artístico. Tras el breve suspiro del segundo movimiento, en el Presto se retoman las exigencias del inicio de la *Sonata* aunque con un carácter más juguetón. La música pensada para la corte a menudo incluía momentos jocosos que abrían una brecha, por más que ambigua y breve, que ponía entre paréntesis el paripé de los eventos cortesanos. Es Mozart, quizá uno de los compositores que más habitualmente ocultaba en sus piezas algún momento de trasgresión. En el caso de Cabanilles lo escuchamos en esta pieza, que mezcla el toque popular con la interrupción del discurrir sonoro, algo significativo en las líneas cromáticas descendentes y los saltos interválicos del solista.



El esplendor de la viola da gamba

Vittorio Ghielmi, Daniel Oyarzabal y
Daniel Zapico

Vitoria-Gasteiz / San Pedro (Eliza/Iglesia) / 20:15

El esplendor de la viola da gamba

Zango biolareñ distira

Vittorio Ghielmi

Viola da gamba

Daniel Oyarzabal

Klabezina eta organoa / Clave y órgano

Daniel Zapico

Tiorba

Vittorio Ghielmi

Viola da gamba jotzailea, zuzendaria eta konpositorea, Milanen jaioa, biolina ikasi zuen, eta, ondoren, *viola da gamba* R. Gini (Milan), W. Kuijken (Brusela) eta C. Coin (París) musikariekin. 1995ean Concorso Internazionale Romano Romanini (Brescia) saria irabazi zuen eta 1997an Edwin Bodky Award (Cambridge, Massachussets) saria.

Jascha Heifetzekin konparatuta, duen teknika bikainagatik, zuzendaria eta bakarlari gisa gonbidatzen dute sarri hainbat orkestra barroko edo sinfonikorekin. Munduko areto ospetsuenetan jo du, orkestra garrantzitsuez lagunduta (Los Angeles Philharmonic Orchestra, London Philharmonia, Concertverein Wien, Il Giardino Armonico eta Freiburger Baroque Orchestra, besteak beste) eta egileen mundu mailako estreinaldiak egin ditu, hala nola Nadir Vassena eta Uri Caine-renak.

2007 eta 2011 artean Riccardo Mutiren laguntzailea izan zen Salzburgoko jaialdian. 2007an, *Membra Jesu Nostri* ikuskizuna sortu eta zuzendu zuen Cuencako Musika Erliejosoaren Jaialdirako. Musikfest Stuttgart (2010), Segoviako (2011) eta Bozar Bruxelles (2011) jaialdietan artista izan da. Salzburgoko Mozarteumeko Antzinako Musika Saileko zuzendaria eta L. Marenzio

Vittorio Ghielmi

Violagambista, director y compositor, nacido en Milán, estudia violín y posteriormente *viola da gamba* con R. Gini (Milán), W. Kuijken (Bruselas) y C. Coin (París). En 1995 gana el Concorso Internazionale Romano Romanini (Brescia) y en 1997 recibe el Edwin Bodky Award (Cambridge, Massachusetts).

Comparado por su técnica brillante con Jascha Heifetz, es invitado regularmente como director y solista con diversas orquestas, barrocas o sinfónicas. Ha actuado en las más prestigiosas salas del mundo acompañado de importantes orquestas (Los Angeles Philharmonic Orchestra, London Philharmonia, Concertverein Wien, Il Giardino Armonico y Freiburger Baroque Orchestra, entre otras) y ha realizado estrenos mundiales de autores como Nadir Vassena y Uri Caine.

Entre 2007 y 2011 fue asistente de Riccardo Muti en el Festival de Salzburgo. En 2007 concibe y dirige el espectáculo *Membra Jesu Nostri* para el Festival de Música Religiosa de Cuenca. Ha sido artista en residencia en festivales como el Musikfest Stuttgart (2010), Festival de Segovia (2011) y el Bozar Bruxelles (2011). Director del Departamento de Música Antigua del Mozarteum de Salzburgo y Cátedra de viola de gamba en el

(Brescia) kontserbatorioan viola da gambaren katedraduna, maisu eskolak eta hitzaldiak eman ditu mundu osoko unibertsitate eta kontserbatorioetan. Metodo baten egilea da *viola da gamba* (Paolo Biordi batera), eta antzinako errepertorioari buruzko orri ezezagun eta ikerketa ugari argitaratu ditu. Jotzen du Michel Colichonen biola bat (Paris 1688).

Daniel Oyarzabal

*Daniel Oyarzabal*ek nazioarteko ibilbide luzea egina du, eta badira urte batzuk ibilbide hori kontzertu askorekin lantzen ari dela, Europa, Asia, Afrika eta Ameriketako 20 herrialde baino gehiagotako jaialdi ospetsuetan parte hartu izan baitu. Bakarlari gisa jo du agertoki garrantzitsuetan, besteak beste, San Petersburgoko Mariinski antzokian, Düsseldorf Opernhaus opera antzokian, Bruselako Palais des Beaux-Arts, Tallin hiriko Estonia Concert Hall, Lyongo auditoriumean, Valentziako Sofia Erregina Arte Jauregian eta Musika Jauregian, Bartzelonako Gran Teatre del Liceun, Madrilgo Errege Antzokian eta Musika Auditorium Nazionalean, Austriako St. Florian Stiftsbasilikan eta Mosku, Amsterdam, Rotterdam, Florentzia, Leon eta Sevillako katedraletan. Pianoa, klabezina eta organoa ikasi zituen jaioterriko Gasteizko kontserbatorioan, eta Europako zenbait maisurekin klabezinari eta instrumentu historikoei buruzko prestakuntza jaso zuen Vienako, Hagako eta Amsterdamgo goi mailako kontserbatorioetan. Hala, *Oyarzabal*ek hainbat sari jaso ditu, eta horien artean nabarmentzekoak dira Prentsaren Sari Nagusia, Eivissan jaso zuena Gazte Interpreteneen Erakustaldi Nazionalean (1991), Erromako Nazioarteko Musika Lehiaketan Inprobisazioko Lehenengo Saria (1998) eta Nijmegen-eko (Holanda) XIX. Organoaren Nazioarteko Lehiaketako Hirugarren Saria (2002). Gaur egun,

Conservatorio L. Marenzio (Brescia), ha ofrecido clases magistrales y conferencias en universidades y conservatorios de todo el mundo. Es autor de un Método para *viola da gamba* (con Paolo Biordi) y ha publicado numerosas páginas inéditas y estudios sobre el repertorio antiguo. Toca una viola de Michel Colichon, París 1688.

Daniel Oyarzabal

Cuenta con una ya larga trayectoria internacional que desde hace años cultiva con una intensa actividad de conciertos en prestigiosos festivales de más de 20 países de Europa, Asia, África y América. Ha actuado como solista en importantes escenarios como el Teatro Mariinski de San Petersburgo, el teatro de ópera Düsseldorf Opernhaus, el Palais des Beaux-Arts de Bruselas, el Estonia Concert Hall de Tallin, el Auditorium de Lyon, el Palau de Les Arts Reina Sofía y Palau de la Música de Valencia, el Gran Teatre del Liceu de Barcelona, el Teatro Real y Auditorio Nacional de Música de Madrid, la Stiftsbasílica de St. Florian en Austria y las catedrales de Moscú, Ámsterdam, Rotterdam, Florencia, León y Sevilla, por citar algunos. Estudió piano, clave y órgano en el Conservatorio de Vitoria-Gasteiz, su ciudad natal, y formado con los mejores maestros europeos en varios postgrados en órgano, clave e instrumentos históricos en los conservatorios superiores de Viena, La Haya y Ámsterdam, *Oyarzabal* tiene en su poder reconocidos galardones entre los que destacan el Premio Especial de la Prensa en la Muestra Nacional para Jóvenes Intérpretes en Ibiza (1991), Primer Premio en Improvisación en el Concurso Internacional de Música de Roma (1998) y Tercer Premio en el XIX Concurso Internacional de Nijmegen, Holanda (2002). Actualmente es organista principal de la Orquesta Nacional de España y

Espaniako Orkestra Nazionaleko organo jotzaile nagusia da, eta Madrilgo Arteen Unibertsitate Eskolako Musika Garaikideen Konposizioko Graduko irakaslea.

Daniel Zapico

1983an jaio zen, Langrean (Asturias). Gazte-gaztetatik, antzinako musikaren arlora bideratu zituen bere ikasketak eta 1999an tiornan espezializatzen hasi zen. Goi mailako ikasketak kalifikazio gorenarekin amaitu zituen *Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan*, Xavier Díaz-Latorrerekin. 2012an, *Musikologia, Musika Hezkuntza eta Antzinako Musikaren Interpretazio*ko masterra lortu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, eta epaimahaiak aho batez zoriondu zuen, Robert de Visèeri buruz egindako proiektuagatik.

Forma Antiquaren kide sortzaile gisa, Espainia osoko jaialdi garrantzitsuetan eta hainbat kontzertu biratan parte hartu du Australia, Austria, Alemania, Bolivia, Brasil, Txina, Ekuador, Frantzia, Grezia, Holanda, Japonia, Mexiko, Panama, Peru eta Serbia. 2008tik *Pizkundeko eta Barrokoko Hari Pultsatuko Instrumentu*en irakaslea da Zaragozako Musika Kontserbatorio Profesionalen; 2009tik aurrera irakaslea da Gijónko Antzinako Musika Akademian (AMAG). Maisu eskolak ere eman ditu hauetan: *The University of Melbourne* (Australia), *Le Rocher de Palmer* (Cenon, Frantzia), *Yong Siew Toh Conservatory of Music* (Singapurko Unibertsitate Nazionala).

Daniel Zapico sari hauek jaso ditu: La Nueva España egunkariaren *Hileko asturiarra*, Asturiasko printzerriko telebistako *2010. urteko taldea* saria, *Asturiasko musika sariak* 2012 eta kultura berrikuntzaren arloko *Serondaya saria* 2012.

profesor del Grado en Composición de Músicas Contemporáneas de TAI Escuela Universitaria de Artes de Madrid

Daniel Zapico

Nace en 1983 en Langreo, Asturias. Desde temprana edad dirige sus estudios hacia el campo de la música antigua iniciando su especialización en la tiorba en 1999. Concluye sus estudios superiores con la máxima calificación en la *Escola Superior de Música de Catalunya* con Xavier Díaz-Latorre. En 2012 obtiene el máster en *Musicología, Educación Musical e Interpretación de la Música Antigua* en la Universidad Autónoma de Barcelona con la felicitación unánime del tribunal por su proyecto sobre Robert de Visée.

Como miembro fundador del ensamble Forma Antiqua ha participado en importantes festivales de toda España y en varias giras de conciertos por Australia, Austria, Alemania, Bolivia, Brasil, China, Ecuador, Francia, Grecia, Holanda, Japón, México, Panamá, Perú, Serbia y Desde 2008 es profesor de *Instrumentos de Cuerda Pulsada del Renacimiento y el Barroco* en el Conservatorio Profesional de Música de Zaragoza y desde 2009 profesor en la Academia de Música Antigua de Gijón (AMAG). También ha impartido clases magistrales en *The University of Melbourne* (Australia), *Le Rocher de Palmer* (Cenon, Francia), *Yong Siew Toh Conservatory of Music* (Universidad Nacional de Singapur).

Daniel Zapico ha sido galardonado con la distinción de *Asturiano del Mes* del periódico La Nueva España, con el premio al *Grupo del Año 2010* de la Televisión del Principado de Asturias, con los *Premios de la Música en Asturias* 2012 y con el *Premio Serondaya* 2012 a la Innovación Cultural.

EGITARAUA ♫ PROGRAMA

Zango biolareñ distira *El esplendor de la viola da gamba*

Bartolomé de Selva y Salaverde (1595-1638)

Susanna Passeggiata del Primer Libro de Canzoni, **Fantasie y Correnti**



Marin Marais (1656-1728)

Prelude en Mi menor

(de Pièces de violes, Livre II)

Rondeau le Bijou

(de Suite d'un gout étranger en Mi menor, Pièces de violes, Livre IV)

Sarabande a l'Espagnole

(Pièces de violes, Livre IV, Suite en mi menor)

Le badinage

(de Suite d'un gout étranger en Fa# menor, Pièces de violes, Livre IV)



Jean-Baptiste Lully (1632-1687)

Assez de pleurs de la ópera Bellérophon,

Arreglo de Robert de Visée (1655-1733)



Johann Sebastian Bach (1685-1750)

Sonata en Re mayor para viola da gamba y clave, BWV 1028

Adagio | Allegro | Andante | Allegro

Herr Gott, nun schleuss den Himmel auf, BWV 617

Wenn wir in höchsten Nöten sein, BWV 641

Christ, unser Herr, zum Jordan kam, BWV 684

Preludio y fuga en sol menor, BWV 885

(Clave bien temperado II)



Antoine Forqueray (1671-1745)

(Pièces de viole avec la basse continue [selección])

La Portugaise

Le Carillon de Passy La Leclair

La Buisson, chaconne

Programaren gaineko iruzkinak/Notas al programa

Marina Hervás

Musika, sorreratik bertatik, era guzietako trikimailuen mende egon da bere anbiquotasunari aurre egin ahal izateko, musika hitzez itzultzea ezinezkoa baita. Platon dugu musikaren aurkako susmo horren lehen adibideetako bat. Platonen garaian, kontuz ibili beharra zegoen, haren ustez, arimari eragiten zion arte horrekin –garaiko terminoen arabera–, nahiz eta nola eragiten dion oso ongi ez dakigun. Hitzarekiko hurbiltasunagatik, ahotsa, denbora luzez, musika sorkuntzaren tresna gogokoena eta pribilegiatura izan zen, eta gainontzeko instrumentuen hobekuntza teknologikoa atzeratu zuen. Errenazimentuan, pixkanaka-pixkanaka, tresnak agertzen joan ziren, baina betiere ahotsaren lagungarri. Zango-biolaren genealogia ("hanka sartu" k hanka edo zangoarekin zerikusia dauka) oso konplexua da, tipología eta garapen modu ugari baitaude. Nolanahi ere den zango-biola barrokoan nagusitu zen, giza ahotsari gehien hurbiltzen zitzzion instrumentua zela uste baitzen. Beste alde batetik, giza ahotsak testurik ezaren anbiquotasunari aurre egiteaz gain, "naturalagotzat" ere jotzen zen. "Naturala" eta "artifiziala" mendebaldeko pentsamendu estetikoan gehien aldatu diren kategorietako bi ditugu. Alabaina, hitz gutxitan esanda, XVIII. mendean indarra hartzen joan zen teoriak – batik bat, Jean-Jacques Rousseauen pentsamenduan– proposatu zuen giza hizkuntzaren jatorria kantuan dagoela, eta kantua galtzen joan ginela pixkanaka-pixkanaka. Ahotsak, hortaz, jatorrizko hizkuntzaren zerbait darama, mendebaldeko kulturan funtsezkoan

La música ha sido sometida, desde sus orígenes, a todo tipo de artimañas para poder combatir su ambigüedad dada la imposibilidad de traducción de la música en palabra. En Platón encontramos uno de los primeros ejemplos de esta sospecha contra la música. Había que tener cuidado, a su juicio, con un arte que afecta al alma -según los términos de la época- pero no sabemos muy bien cómo. La cercanía a la palabra hizo que la voz se convirtiera durante mucho tiempo en el instrumento favorito y privilegiado en la creación musical y que se retrasara la mejoría tecnológica del resto de instrumentos. En el renacimiento, poco a poco, se fue conquistando la presencia de instrumentos, aunque siempre subsidiarios de la voz. La genealogía de la viola de gamba (donde "gamba", al igual que en "meter la gamba" se refiere a las piernas) es muy compleja, pues hay numerosas tipologías y formas de desarrollo. Lo que es común a toda su historia es que se ganó un puesto principal en el barroco porque se consideraba que era el instrumento que más se acercaba a la voz humana. Poco a poco, además, la voz humana no solamente combatía la ambigüedad de la ausencia de texto, sino que también se consideraba más "natural". Lo "natural" y "artificial" han sido dos de las categorías más cambiantes en el pensamiento estético occidental. Pero, dicho en pocas palabras, la teoría que fue cogiendo fuerza -con especial significancia en el siglo XVIII en el pensamiento de Jean-Jacques Rousseau- es la que plantea que el origen del lenguaje humano se encuentra en el canto del cual nos fuimos, poco a poco, desprendiendo. La voz porta, entonces, algo del lenguaje

dena, Genesian deskribatutakoak bezalako une urrunetara garamatzana, non Jainko “aditz bilakatu zen”, hau da, hitz –entzungarria baino ez zen, ez ikusteko modukoak–.

Instrumentu guztien artean, flauta eztia eta zango biola ziren giza ahotsean ezkutatutako “naturaltasun” horretatik hurbilene zeudenak. Gizonezkoen ahotsaren agerpen nabarmenak –gregoriarraren herentzia, nonbait-elkarri lotutako bi gertakari azaltzen ditu: ahots altuenak, normalean, tarteko plano batean egotea, erregistro oso altuetara jo gabe; eta zango biolarako musikaren sonoritate ilunerako joera, malenkoniarrek nabarmen lotzea eragiten duena. Musikan introspezkioa bilatzea –kasu honetan, biolarene bidez– bat dator arrazionalismoaren gorakadarekin eta “nia” jakintzaren kategoria sortzaile gisa konkistatzearekin. Horregatik, Descartesek bere pentsamendua “pentsatzen dut, beraz, banaiz” lelo ezagunean laburbildu zuen edo Kantek *sapere aude* [ausarto zaitez pentsatzen] izenekoa aldarrikatu zuen “Zer da Ilustrazioa?” lanean, non jakitearen ausardiak tutoretzari –batez ere, tutoretza erlijiosoari– uko egi zion. XVII. eta XVIII. mendeen artean, egiletzaren nozioa ideia garatu zen musikagileen artean. Programa honetako lanak protoadierazpen pertsonalaren modukoak dira, giza adierazpena hitzen boteretik haratago zabaltzen duen musika tresna baten bidez.

Zango biolarene kontzeptualizazio horrekin batera (hots, gizakiaren gandik gertuen dagoen tresna delakoan), itxuraz kontraesankorra den beste gertakari bat jazotzen zen: mende askotan zehar –baita guri dagokigun sasoian ere–, ez dakigu zein tresnatarako pentsatuta eta idatzitza zeuden pieza gehienak. Esate baterako, *Susanna passeggiata*,

originario, fundamental en la cultura occidental, que nos remite a momentos tan remotos como los descritos en el Génesis, en el que Dios “se hizo verbo”, es decir, palabra -solo era audible, no visible-.

De entre todos los instrumentos, la flauta de pico y la gamba eran las que fueron consideradas como más cercanas a esa “naturalidad” oculta en la voz humana. La destacada presencia de voces masculinas –una herencia, al menos, gregoriana– explica dos fenómenos vinculados: que las voces más agudas normalmente permanezcan en un plano intermedio, sin visitar registros muy elevados; y la tendencia a la sonoridad oscura de la música para viola de gamba, que hace que se vincule significativamente con la melancolía. La búsqueda de la introspección en la música –en este caso, a través de la viola– coincide con el auge del racionalismo y la conquista del “yo” como categoría fundante del saber. Por eso Descartes resume su propuesta en el bien conocido en el “pienso, luego existo” o Kant celebra en su “¿Qué es la Ilustración?” el *sapere aude* [atrévete a pensar], en el que la valentía del saber supone la renuncia al tutelaje –especialmente el religioso-. Entre el siglo XVII y XVIII se desarrolla la noción de autoría en los compositores, lo que hace de las obras de este programa una suerte de protoexpresión personal a través de un instrumento que amplía la expresión humana más allá del poder de las palabras.

Convive con esta conceptualización de la viola da gamba como un instrumento cercano a lo humano otro fenómeno aparentemente contradictorio: durante muchos siglos –también en los que nos ocupan– se desconoce para qué instrumento estaban pensadas y escritas gran parte de las piezas. Es el caso de

Bartolome de Selva y Salaverderena, bere bizitzari buruz ezer gutxi dakiguna. 1638. urteko *Primo de Canzoni, Fantasia y Correnti* liburua da osorik irauen duen musikagile horren liburu bakarra, eta, arrestian esan bezala, “bi, hiru edo lau ahotsentzako eta baxu jarraituarentzako” lanak ditu, zer instrumentutarako idatzita zegoen ezer gehiago zehaztu gabe. Hala ere, instrumentu baten edo bestearen aukeraketa mugatuta zegoen piezan erabilitako tesiturari esker. Lan hori “bakarlariaren” nozioaren adibide goiztiarra da. Barrokoak, oro har, egitura harmonikoen eraikuntza konplexua du ezaugarri, Erranazimentuko “gardentasunaren” eta “simpletasun” klasikoaren gainetik, baldin eta bi substantivo horiek esandako garaiaak oro har deskribatzeko balio badute, behintzat. Beraz, *Susanna passeggiata* zango biolaren rola antzerkian bakarrizketarena bezala eraikitzeagatik bereizten da. Harreman hori, baina, ez da doakoa: barrokoak antzerkia du, neurri handi batean, arteen eta musikaren eredu; zehazki, osagai dramatikoa aztertzen du, erretorika musikaletik abiatuta. Musika erretorika, nolabait esateko, musikari aplikatutako diskurtsoaren tresnen itzulpena zen. Horrela, anbiguotasunaren mehatxua ezabatzen zen, afektu ezberdinak adierazteko modua ezartzen baitzen.

Johann Sebastian Bach “antzerkigile musical” behinenetako da eta, programa honetako piezen kasuan, bere antzerkirako joerak protestantismoaren mezua musikara eraman nahi zuen: huribileko Jainktoa eta gizabanako zehatzarekiko arreta. *Herr Gott, nun schleus den Himmel auf* [Jauna, ireki itzazu zeruko ateak] koralaren izen bereko sarrera, funtsean, bi osagaiz eraikitzen da: alde batetik, testuaren edukiaren zati bat islatzen duen laguntha korapilatsua, non heriotzaren ordua, bidaiaaren

